



43. ELKARREREKIN GAIZKI BAI NO,
HOBETU ARAIA ETA ONGI!

0. AZALA

Sormenari buruz hitz egiten digute ale honetan!!! Baina zer da sormaren inguruan dakizuen?

Sormena betidanik izan da. Gizakiaren gaitasuna da, eta, beraz, berezkoa. Baina denbora luzean ez da “sormena” kontzeptu gisan hauteman, eta, beraz, ez da komunitate zientifikoaren aztergai izan pentsalari berriek gai honen transzendentziaz ohartu direnera arte.

Gu ere gai honen handitasunaz ohartzen gara, eta sormenaz hitz egitera ausartu eta haren garrantzia azpimarratu dugu; guretzat, sormen prozesua, gizakiaren gaitasun gorena eta konplexuena baita.

Sormena gure giza kondizioaren emaitza naturala denez gero, pertsona orok ditu sortzeko gaitasun indartsuak. Sormenaren kulturak, beraz, pertsona oro barnebildu, integratu behar du, ez soilik hautatu gutxi batzuk”.

Ken Robinson, 2000*.

Hori irakurrita, has gaitezen bada aldizkariaren azala, haurrarekin ikusten:

Eskatu haurrari azaleko letrak irakurtzeko, eta, ondoren, galdetu ea sormena zer den badakien! Hala ez bada, azaldu haurrari honelako zerbait:

“Sormena zera da, ideia berrien pentsamenduetan sartzea. Denok dugu sortzeko gaitasuna, eta sortzearen nahia unibertetsala da. Izaki guztiek pertzepzio era originala dugu, bai bizi esperientzietan baita irudimenean ere... Sormena, beraz, izakion naturaren funtsezko ezaugarria dela irakur dezakegu, gizaki guztiei edo ia guztiei jaiotzean emana baina kasu askotan galdu egiten dena, edo lurperatu edo inhibititu, hezkuntzaren edota kulturaren bidez”.

Amaitzeko, esan haurrari, zerbait sortzeko gogorik ote duen... Galdetu ea beharrezko izango duen magoaren kapa jartzea zerbait hori sortzeko! Hala kaparik gabe ere, gai izango den! Eman denbora, eta gauzatu dezala bururatu zaion hori... Isiltasunak, lasaitasunak, denborak eta abarrek sormen gaitasuna areagotzen dute...

Bukatzeko, hitz egin sortu duen horren inguruan, galdetu ea nola sentitu den...

1. AURKIBIDEA

Aurkibideko azken lerroetan adierazten da egungo hezkuntza sistema sormenaren garapenerako oztopo bilakatzen zaigula askotan.

Ken Robinsonek hezkuntzaren egungo paradigma deskribatzen duenean, hezkuntza modeloa industria sistema batekin parekatzen du, non, bertara, haur ezberdinak sartzen diren eta ezarritako



43. EIKARREKIN GAIZKI BAI NO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

lan merkatu batera begira lanbide bat egiteko modura eraldatzen dituzten... Ekonomia eredu batek baldintzatzen du hezkuntza sistema, eta interes horien arabera diseinaturiko hezkuntza mota jasaten dugu.

Honen aurka egin nahi badugu, garrantzitsua izango da, eskola eremutik ahal den heinean eta etxetik, behintzat, haurra bere nortasun eta berezitasun horretan hezte. Eta bide horretan, haren sormen gaitasuna loratzeko bideak eraikitzen laguntzea!

Aurkibidea lantzeko eta irakurtzeko, galdetu ea aurkibideko testuko zein paragrafo zati egiten zaion erakargarriena, politena, eta proposatu hauxe:

Esan aukeratzen duen zati horrekin lanketa egin beharko duela: alegia, testu zatitxoa behin eta berriz irakurri beharko du, ondo ulertu eta, ondoren, ahoz goran, irakurritakoa adierazi, kontatu.

Ea nola moldatzen zareten!

2. PUPU ETA LORE

Gure haurtxoen komikia irakurtzen jarri aurretik, eskatu haurrari izenburua bakarrik irakurtzeko eta begirada azkar bat emateko irudiei. Horrekin, komikiko atalak zeri buruz joango diren asmatu beharko du. Ea lortzen duen!

Ondoren, bion artean, irakurri errimaz beteriko bertsoak. Irakurtzen amaitzean, gure haurtxoei imitatzeraz animatzen zaituztegu! Jantzi kapa bizkarrean, astindu beso eta hankak, joan parkera eta egin jolas txoriekin, egin salto ohe gainean (oheak apurtu gabe noski)...

3. PIRRI'TX, PORRO'TX ETA MARIMOTOTS

Irudi zoragarriak beteriko ipuintxoak irakurtzen hasi aurretik, eskatu haurrari irudiei begiradaxo bat emateko, eta galdetu:

- Zer gertatzen dela uste duzu?
- Zeri buruz ariko dira Pupu eta Lore hizketan?

Behin galdera hauek eginda, esan, istorioa zeren inguruan doan asmatzen hasteko eta pistak emateko, istorioko bunbuiloak irakurriko dizkiozula.

Zuk irakurrita ez badu asmatzen, galdetu ea irakurri nahi duen! Baiezkoa badio, egin nahi duzen bezala irakurketa!



43. EIKARREKIN GAIZKI BAI NO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

4. OSASUNA GURE ONDASUNA

Osasunaren marrazkiari begiratuta, galdetu haurrari gure Tiritatxoren aholkuak zeri buruzkoak izango diren oraingo honetan.

Behin asmatutik, irakurri bion artean Tiritatxoaren aholkuak.

Aholku bakoitza irakurri ondoren, ideia ona izan daiteke gomendioaren inguruan zertxobait hitz egitea:

- Gogoko duzu eskaileak igo edo jaistea?
- Eta oinez ibiltzea?
- Kirola egiten duzunean nola sentitzen zara gero? Ondo sentiarazten zaitu?
- Zenbat denboran egoten zara telebista ikusten? Eta ordenagailuaren aurrean?
- Denbora hori guztia beharrezkoa dela uste duzu? Denbora luzean hori egiten egon beharrean, beste zer egin dezakezu?...

Galderak egin ondoren eta orrialdeak irakurtzez amaitzean, hitz egin iezaiozu, kirola egitearen garrantziaz, egunero apur bat egiteak ematen dizkigun onurez...

5. NANA PARKEAN

Haurrak istorio honetako hitz polit hauek irakurri beharrean, zuk zeuk istorioa berari irakurtzea gomendatzen dizugu oraingoan. Istorioak entzutea, irakurketara gerturatzeko modua izan daiteke, horrelako edo antzerako istorioak aurkitzera anima dezakeelako haurra... Zeinek daki!

Beraz, oraingo honetan, haurrari istorioa irakurtzea proposatzen dizugu. Horretarako, esan leku eroso eta lasai batera joango zaretela eta zuk zeuk irakurriko diozula.

Kontatuko diguzue nola joan den kontakizunaren esperientzia!

6. TXOREN ISTORIOAK

Txoren istorioan murgiltzen hasteko, lehenik eta behin, istorioaren izenburua ahots goran irakur dezakezu! Ahotsa altxatuz: "Hiru mila euro!!!". Ondoren, galdetu haurrari ea badakien 3.000 euro zenbat den.



43. ELKARREKIN GAIZKI BAI NO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

Diru kantitate hori zenbat den azaldu diozularik eta Txoren istorioa irakurtzen hasi aurretik, esaiozu istorioan zehar gure Txok garai batean hori balio zuen zerbaitez hitz egiten digula... Eta ez hori bakarrik... Eskorbuto izeneko gaixotasunari buruz ere hitz egiten digula...

Horren guztiaren inguruan zer kontatzen diguten jakin nahi badu, irakurri besterik ez du egin beharko... Beraz, animatu bera bakarrik irakurtzera...

Eskorbutoaren inguruan, hau azaldu diezaiokezu: Eskorbutoa C bitaminaren eskasiak eragindako gaixotasuna dela. Garai batean oso ohikoa zen eskorbutoa marinela eta piraten artean; izan ere, itsasoan denbora luzez egoten zirenez, ez zituzten frutak eta barazkiak jaten. Horren ondorioz, C bitaminaren gabezia izaten zuten. Hala ere, euskal marinelen artean eskorbutua ez zegoen beste marinelen artean bezain zabaldua; izan ere, euskaldunek sagardoa eramaten zuten kupeletan bidaia luzeetan, eta sagardoak C bitamina ugari du; horrela, ez zituen jotzen eskorbutuak.

7. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Atal honetan, bertsoak ondo ulertzea proposatzen dizuegu; izan ere, barruan ezkutaturik, mezu polit eta interesgarriak dakartzate. Beraz, haurra horiek irakurtzera animatzeko, esan bertsoak biok irakurriko dituzuela baina isilean. Bakoitzak bere kontura irakurri eta ulertu beharko du bertsoa. Behin irakurrita, bion artean komentatuko duzue irakurritakoa, ea zer ulertu duzuen, zer iruditzen zaizuen, zer esan nahi duten hitz horiek...

Amaitzean, gustukoen izan duzuen bertsoa aukeratuko duzue, eta bata besteari irakurriko dio, ahots goran. Helburua zera da, bertsoan esaten dena benetan sinetsi eta sentitzea, eta besteari opari bat ematea hitzen bidez. Elkarrekin parteka dezakezuen une eder askoa izan daiteke...

8. LAGUN

Irudimena hitza azaleratzen digute gure laguntxoek oraingoan... Baina ba ahal daki zure haurrak zer den irudimena? Hauxe esan diezaiokezu haurrari: "Zera dela esaten da irudimena: errealitatetik ikusmen, entzumen eta beste zentzumenen bitartez jasotzen ez diren irudiak eta sententzioak irudikatze ahalmena".

Aipatu gure Pupuk eta Lorek sekulako irudimena dutela eta Lagunen istorioa irakurrita ziurtatuko dituzuela!

Behin komikia irakurrita, irudimena lantzeko eta loratzeko edozein ekintza egitera animatu: marraztu, dantza egin, moxorrotu, musika entzun...

Ez ahaztu denok ditugula gaitasun sortzaileak, eta gure esku dagoela haurrei horiek azaleratzeko aukerak ematea!



43. ELKARREKIN GAIZKI BAI NO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

9. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK

Euskal Herriko Animalien atalean, bertako animalien informazioa izango dugu. Testuko zenbait hitz, ziur asko, ezezagun, arraro eta ezberdin egin zaizkigu, ezta? Hona gure proposamena:

- Hitz bilduma bat osatzen hastea.
- Horretarako, multzo batzuk osatuko ditugu:
 1. Hitz arraroak.
 2. Hitz ezezagunak.
 3. Ekintza adierazten dutenak.
 4. Nolakoa? galderari erantzuten diotenak.
 5. ...

10. FILOSOFO TXIKIAK

Gure filosofo txikiek beti darabilte zerbait eskuartean. Oraingo honetan, ideien eta pentsatzeko moduen inguruan eztabaidan dihardute.

Atal honetan, komikia irakurri ondoren, hau izango da gure proposamena:

1. Irakurri komikia.
2. Hartu asteko bi gau.
3. Gau bakoitzean, oheratzeko momentuan, har ezazue tartea pentsatzen ari zaretena edo egun osoan izan dituzuen ideiak idazteko edo ahoz gora elkarrekin konpartitzeko.
4. Ariketa honek elkar hobekiago ezagutzeko balioko dizue.



43. Ekarrekin gaizki baino,
hobe aparte eta ongi!

11. MARTIN BERTSO

Jarraian, detektibe lanak egiteko beta emango dizuegu. Martin Bertso irakurri ondoren, hona zer egingo dugun:

- Orri zuri batean, detektibe lanetarako lupa bat marraztu eta moztuko dugu.
- Ondoren puntu hauek zehaztuko ditugu:
 - Komikiaren protagonista.
 - Zer gertatu da.
 - ...
- Puntuak jarri ondoren, hartu komikia berriz, eta, lupa esku artean duzuela, ea gai zareten jarritako puntuei erantzuna aurkitzeko.

12. MARIKALANBRE

Oraingoan ere, Largabistak ez du galdu aukera bere jakituria besteekin banatzeko. Hiztegia zertxobait lantzeko jolas bat lantzea izango da gure nahia.

- Komikian dauden hitz batzuk azpimarratu.
- Irakurtzen ari zareten bitartean azpimarratutako hitzetara iristean, sinonimoa asmatu behako duzue; hau da, gauza bera esan nahi duen beste hitz bat.
- Kontuan izan haurraren adina; eskaini laguntza behar den orotan.

13. LARGABISTA

Oraingo honetan, komikia irakurtzeko zera proposatzen dizugu:

- Estali komikiaren irudiak, eta esan haurrari irudiak ikusi gabe irakurriko duzuela. Marrazturik ageri diren irudiak (baina ikusi ezin dituzuenak) irudikatzeke, imajinazioz bete beharko du bere buru eta bihotza!
- Irakurri, nahi duzuen bezala: bion artean, berak bakarrik, etxeko besteren batekin...
- Behin, komikia irakurrita, eman orri txuri bat, eta animatu irakurri duzuen hori irudikatzeraz!



43. EIKARREKIN GAIZKI BAI NO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

- Gure proposamena da irudiak txandakatuz marraztea hau da, bakoitzak zerbait marraztu behar du, baina txandaka. Ea zer nolako itxura ematen diozuen!!

Seguru gaude marrazki izugarri eder eta polita egingo duela!

14. ZENBATAK

Komikia irakurri bitartean, haurren buruetan ere hainbat ideia sortuko dira, hormaren beste aldea ikusi ahal izateko. Beraz, gure proposamena da:

1. Irakurri komikia bion artean.
2. Zuek aukeratu nola irakurri, bakarka, binaka...
3. Eta irakurtzen ari zareten bitartean, zeuen buruetan eta haurraren buruan zer dagoen ezagutzeko, egin galderak, adibidez:
 - Zer egingo zenuke?
 - Eskailerekin lortuko dute?
 - ...

15. OLIBATXO

Esaiozu haurrari: “Oraingoan, Olibatxok esaten duena ondo-ondo ikasi beharko dugu; izan ere, ondoren, gure familiakoei azaldu behar diogu, ados?”

Beraz, zuen esku gelditzen da, zuen familiakoei nola azaldu: antzerki baten bidez edo beste modu batez.

Zuen hurrek buruan darabiltena martxan jartzeko tarte ederra izango da!

Ondo pasa!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Jarrai dezagun irakurtzen. Oraingoan ere jolas bat proposatzen dugu irakurri ondoren egiteko:

- Hautatu hitz gakoak.
- Jarri hitz hauek beste horri batean idatzita.
- Ea nork aurkitzen dituen azkarrago.



43. EIKARREKIN GAIZKI BAI NO,
HOBE APARTE ETA ONGI!

- Amaitzeko, hartu tartetxo bat hitz horien gainean gogoeta egiteko. Adibidez, zein da zuen iritzia behar berezien inguruan?

17. ZERAINGO UDALEKUAK

Aurten ere Zeraingo udalekuak izango ditugu!

1. Lagundu haurrari informazioa irakurtzen, eta ondoren informazio garrantzitsua zein den sailkatzen lagunduko diozu, ados?
2. Informazio hori aparteko orritxo batean idazten joango zarete.
3. Amaitzeko, esaiozu haurrari: "Ideia bat daukat. Zer iruditzen zaizu zuk nahi duzun jolas batean aritzea?"